



EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Talde profesionaleko barne-sustapen bidezko borondatezko integrazio-prozesuko gai-zerrendako galdera-sorta -2026-

02 bertsioa

lanbide

- 1. Espainiako 1978ko Konstituzioaren 1. artikulua adierazten duenez, Espainia zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa da, eta, bere ordenamendu juridikoaren balio nagusi gisa, honako hauek aldarrikatzen ditu:**
 - a. Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
 - b. Askatasuna, justizia eta berdintasuna.
 - c. Legezketasun-printzipioa.
 - d. Demokrazia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
- 2. Espainiako 1978ko Konstituzioaren 1. artikulua adierazten du honako hau dela Espainiako Estatuaren forma politikoa**
 - a. Errepublika.
 - b. Monarkia demokratikoa.
 - c. Ordezkaritzako monarkia.
 - d. Monarkia parlamentarioa.
- 3. Espainiako Konstituzioaren 11. artikulua hau dio espainiar jatorriko nazionalitateari buruz:**
 - a. Jatorriz espainiarra denari ezin zaio naziotasuna kendu.
 - b. Epai irmo bidez gal daiteke.
 - c. Administrazio-zehapenaren ondorioz gal daiteke.
 - d. Behin betiko epai irmo bidez gal daiteke.
- 4. Konstituzioaren 35. artikulua lanerako eskubideari buruzkoa da, eta honako hau dio:**
 - a. Espainiar guztiek dute lan egiteko betebeharra eta lanerako eskubidea.
 - b. Eskubide hori 36. artikuluan arautzen da.
 - c. Eskubide hori ez dago Konstituzioan jasota.
 - d. Betebehar bat dela baino ez da adierazten, ez eskubide bat.
- 5. Konstituzioaren 68. artikulua. Diputatuen Kongresuak gutxienez 300 diputatu eta gehienez 400 izango ditu,**
 - a. Sufragio unibertsal, aske, berdin, zuzeneko eta isilpekoaren bidez hautatuak.
 - b. Sufragio unibertsal, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez hautatuak.
 - c. Sufragio unibertsal, aske, berdin eta zuzenekoaren bidez hautatuak.
 - d. Autonomia-erkidegoetako legebiltzarrek hautatuak.
- 6. Espainiako Konstituzioaren 69. artikulua:**
 - a. Senatua lurraldeak ordezkatzeko ganbera da.
 - b. Ceutak eta Melillak bina senatari hautatuko dituzte.
 - c. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - d. a) eta b) erantzunak okerrak dira.

- 7. Konstituzioaren 81. artikulua. Lege organikoak dira oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak garatzen dituztenak, autonomia-estatutuak eta hauteskunde-araubide orokorra onesten dituztenak, eta Konstituzioan ezarritako beste guztiak.**
 - a. Autonomia-estatutuak onesten dituztenak lege arruntak dira.
 - b. Baieztapen hori zuzena da.
 - c. Baieztapen hori okerra da.
 - d. Hauteskunde-araubide orokorra lege arrunt bidez arautzen da.
- 8. Konstituzioaren 82. artikulua. Gorte Nagusiek Gobernuari eskuordetu diezaiokete lege-mailako arauak emateko ahala, gai jakin batzuetan.**
 - a. Inoiz ez lege organiko bidez arautu beharreko gaietan.
 - b. Gorte Nagusiek ezin diote inoiz egin eskuordetza hori Gobernuari.
 - c. Konstituzioak ez du halakorik aurreikusten.
 - d. Aurreikuspen hori Konstituzioaren 1. artikuluan jasotzen da.
- 9. Konstituzioaren 9. artikulua. Aldekoak ez diren edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zigor-xedapenen atzeraeraginik eza bermatzen du.**
 - a. Arauak publiko egitea ere bermatzen du.
 - b. Botere publikoen arbitrariotasun-debekua ere bermatzen du.
 - c. Segurtasun juridikoa ere bermatzen du.
 - d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 10. Konstituzioaren 7. artikulua. Langileen sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek**
 - a. Dagozkien interes ekonomiko eta sozialak babesten eta sustatzen laguntzen dute.
 - b. Barne-egitura eta funtzionamendu demokratikoak izan behar dituzte.
 - c. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - d. a) eta b) erantzunak okerrak dira.
- 11. Konstituzioaren 8. artikulua. Lurreko Armadak, Itsasoko Armadak eta Aireko Armadak osatzen dituzte Indar Armatuak.**
 - a. Guardia Zibila ere Indar Armatuetako kide da.
 - b. Aireko Armada ez da Indar Armatuetako kide.
 - c. Ertzaintza ere Indar Armatuetako kide da.
 - d. a), b) eta c) erantzunak ez dira zuzenak.
- 12. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua. 2. artikulua dioenez, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak dute, Nafarroak bezala, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea.**
 - a. Ez da Nafarroa aipatzen.
 - b. Baieztapen hori 22. artikuluan jasotzen da.
 - c. Baieztapen hori 32. artikuluan jasotzen da.
 - d. a), b) eta c) erantzunak okerrak dira.

- 13. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala. Artikulu horri dagokionez, zein da erantzun zuzena?**
- a. Gaztelania ez da ofiziala Euskadin.
 - b. Euskadiko biztanle guztiek dute eskubidea bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko.
 - c. Euskadiko biztanleek euskara erabiltzeko betebeharra dute.
 - d. Euskadiko biztanleek euskara jakiteko betebeharra dute.
- 14. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 8. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan oso-osorik dauden udalerri edo lurraldeak Euskal Autonomia Erkidegoari atxikitzeko aukera jasotzen du.**
- a. Aukera hori debekatuta dago Espainiako Konstituzioan.
 - b. Euskal Autonomia Estatutuan ez dago horrelako aurreikuspenik.
 - c. Aurreikuspen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 28. artikuluan jasotzen da.
 - d. Baieztapen hori zuzena da.
- 15. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 24. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak honela gauzatuko dira:**
- a. Legebiltzarraren bidez.
 - b. Eusko Jaurlaritzaren bidez.
 - c. Lehendakariaren bidez.
 - d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 16. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 25. artikulua. Eusko Legebiltzarrak**
- a. Legegintza-ahala du.
 - b. Bere aurrekontuak onartzen ditu.
 - c. Ez du Eusko Jaurlaritzaren jarduna kontrolatzen.
 - d. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 17. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 26. artikulua. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru batek osatuko du Eusko Legebiltzarra.**
- a. Biztanle-kopuruarekiko zuzenki proportzionala izango da.
 - b. Biztanle-kopuruarekiko alderantziz proportzionala izango da.
 - c. Lurralde historiko bakoitzak ordezkari-kopuru berdina izango du.
 - d. Erantzun bat ere ez da zuzena.
- 18. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 29. artikulua. Eusko Jaurlaritzak**
- a. Kide anitzeko organo bat da.
 - b. Ordezkaritzako organo bat da.
 - c. Europar izaerako organo bat da.
 - d. Izaera pribatuko organismo bat da.
- 19. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 31. artikulua. Eusko Jaurlaritzak bertan behera geldituko da**

- a. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ondoren.
- b. Legebiltzarraren babesak galduz gero.
- c. Lehendakariak kargua utzi edo hiltzen bada.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

20. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 33.artikulua. Eusko Jaurlaritzako lehendakariak

- a. Jaurlaritzako sailburuak izendatzen ditu.
- b. Jaurlaritzako sailburuak kargutik kentzen ditu.
- c. Jaurlaritzako sailburuak izendatzen eta kargutik kentzen ditu.
- d. Erregeari dagokio sailburuak izendatzea eta kargutik kentzea.

21. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 33. artikulua. Zeinek hautatzen du Eusko Jaurlaritzako lehendakaria?

- a. Eusko Legebiltzarrak bere kideen artean.
- b. Lurralde historikoetako legebiltzarrek beren kideen artean.
- c. Erregeak hautatu eta izendatzen du.
- d. Espainiako Gobernuak lehendakariak hautatzen du.

22. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 34. artikulua: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren antolakuntzak justizia-auzitegi nagusi bat izango du guztien gainean, eta

- a. Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan izango du eskumena.
- b. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren lurralde osoan izango du eskumena.
- c. Espainiako estatu osoan izango du eskumena.
- d. Euskal Autonomia Erkidegoarekin mugakide diren autonomia-erkidegoetan ere eskumena izango du.

23. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 34. artikulua: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria

- a. Erregeak izendatuko du.
- b. Eusko Legebiltzarrak izendatuko du.
- c. Lehendakariak izendatuko du.
- d. Espainiako Gobernuak lehendakariak izendatuko du.

24. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 36. artikulua. Ertzaintza, polizia judizial gisa diharduenean, Justizia Administrazioaren zerbitzura eta haren mende egongo da, legezko prozesalek xedatzen dutenaren arabera.

- a. Ertzaintzak ez du inoiz polizia judizial gisa jarduten.
- b. Ertzaintzak polizia judizial gisa jarduten du, Eusko Jaurlaritzak hala eskatuta.
- c. Ertzaintza, polizia judiziala den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren mende baino ez dago.
- d. a), b) eta c) erantzunak okerrak dira.

25. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legearen 5. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

- a. Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitatearekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.
- b. Irakaskuntza hizkuntza ofizial bietan izateko eskubidea.
- c. Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

26. Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legearen 13. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoan botere publikoek erabili beharreko inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiek bi hizkuntzetan egon beharko dute.

- a. Eskaerak direnean bakarrik.
- b. Eskatzaileak elebidunak izatea eskatzen badu bakarrik.
- c. Hartzailearen bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean bakarrik.
- d. a), b) eta c) erantzunak ez dira zuzenak.

27. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. artikulua. Estatutu horretako xedapenak honako langile hauei aplikatu behar zaizkie zuzenean:

- a. Epailerei, magistratuei eta fiskalei.
- b. Indar Armatuetoako langile militarrei.
- c. Segurtasuneko indar eta kidegoetoako langilei.
- d. a), b) eta c) erantzunak ez dira zuzenak.

28. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 9. artikulua:Funtzionario publikoei dagokie, eta ez langile lan-kontratudunei, zuzenean nahiz zeharka parte hartzea eskatzen duten eginkizunak betetzea, ahal publikoak baliatzeko jardunetan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrak zaintzeko zereginetan.

- a. Baieztapen hori zuzena da.
- b. Estatuko Administrazioaren arloan bakarrik.
- c. Administrazio autonomikoaren arloan bakarrik.
- d. Toki-administrazioaren arloan bakarrik.

29. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikulua. Aldi baterako programak exekutatzeko, bitarteko funtzionarioak izendatu ahal izango dira. Programa horien exekuzioak

- a. Ezin izango du hiru urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da, estatutu hori garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.
- b. Ezin izango du bi urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da, estatutu hori garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.
- c. Ezin izango du lau urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da, estatutu hori garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.
- d. Ezin izango du sei urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da, estatutu hori garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.

- 30. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 78. artikulua. Administrazio publikoek honako printzipio hauetan oinarritutako prozeduren bitartez hornituko dituzte lanpostuak:**
- Berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioetan.
 - Berdintasun-, merezimendu- eta publikotasun-printzipioetan.
 - Berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan.
 - Merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioetan.
- 31. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 79. artikulua. Zer da lehiaketa, lanpostuak betetzeko prozedura gisa?**
- Lanpostuak betetzeko ezohiko prozedura da.
 - Lanpostuak betetzeko prozedura anormala da.
 - Lanpostuak betetzeko ohiz kanpoko prozedura da.
 - Lanpostuak betetzeko ohiko prozedura da.
- 32. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikulua. Enplegu publikoaren eskaintza onartu ondoren, hautaketa-prozesuen deialdia epe luzaezin batean egin beharko da. Zenbatekoa da epe hori?**
- Urtebetekoa.
 - Ez dago halako prozesuak exekutatzeko epe luzaezinik.
 - Hiru urtekoa.
 - Sei hilabetekoa.
- 33. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 87. artikulua. Karrerako funtzionarioak zerbitzu berezietan daudela aitortuko da egoera hauetan:**
- Gobernuko kide izendatzen dituztenean.
 - Autonomia-erkidegoetako gobernu-organismoetako kide izendatzen dituztenean.
 - Europar Batasuneko erakundeetako kide izendatzen dituztenean.
 - a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 34. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 89. artikulua. Familiartekoak zaintzeko eszedentzian dauden funtzionarioei:**
- Gutxienez bi urtez gordeko zaie betetzen duten lanpostua.
 - Herri berean eta ordainsari bera duen lanpostu bat gordeko zaie bakarrik.
 - Herri berean eta ordainsari bera duen lanpostu bat gordeko zaie, baina bi urtez bakarrik.
 - Betetzen duten lanpostua gordeko zaie beti.
- 35. Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 64. artikulua. Karrerako funtzionarioaren izaera galtzeko arrazoi dira:**
- Nazionalitatea galtzea.
 - Funtzionarioak erretiro osoa hartzea.
 - Eszedentzia.
 - a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

- 36. Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 71. artikulua. Eukal enplegu publikora iristeko betekizunak dira (adierazi erantzun okerra):**
- Espainiako nazionalitatea izatea.
 - Hamasei urte beteta izatea eta erretiro arrunta hartzeko adinetik gorakoa ez izatea.
 - Behar besteko gaitasun funtzionala izatea zereginak betetzeko.
 - Eskatutako titulazio akademiko ofiziala izatea.
- 37. Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 71. artikulua. Hautaketa-prozesu bat gainditzeagatik edo funtzionario bihurtzeko prozesu baten ondorioz sartu berri diren funtzionarioek dagokion prozesuan esleitutako destinoaz jabetzeko egunaren ondoren deitzen diren lekualdatze-lehiaketetan parte hartu ahal izango dute, baldin eta**
- Dagokion prozesuan esleitutako destinoaz jabetu zirenetik bi urte igaro badira.
 - Dagokion prozesuan esleitutako destinoaz jabetu zirenetik hiru urte igaro badira.
 - Dagokion prozesuan esleitutako destinoaz jabetu zirenetik lau urte igaro badira.
 - Dagokion prozesuan esleitutako destinoaz jabetu zirenetik urtebete igaro bada.
- 38. Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 72. artikulua. Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako nazionalak funtzionario izatera irits daitezke euskal administrazio publikoetan.**
- Zuzenean botere publikoa baliatzen parte hartzea dakarten enpleguetan izan ezik.
 - Zeharka botere publikoa baliatzen parte hartzea dakarten enpleguetan izan ezik.
 - Administrazio horien interesak zaintzeko zereginetan parte hartzea dakarten enpleguetan izan ezik.
 - a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 39. Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 142. artikulua. Karrerako funtzionarioek borondatezko eszedentzia lanpostu-erreserbaduna eskatu ahal izango dute. Horretarako, gutxienez aurreko hiru urteetan jardun behar izan dute funtzionario modura zerbitzuak ematen administrazio publikoren batean edo sektore publikoan. Zenbat iraungo du eszedentzia horrek?**
- Sei hilabete.
 - Urtebete.
 - Sei hilabete eta urtebete bitartean.
 - Bi urte.
- 40. Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 142. artikulua. Aurreko kasuan:**
- Ezin izango da beste eskaerarik egin harik eta benetako hiru zerbitzu-urte metatu arte eszedentziaz baliatzeko aldia amaitzen denetik aurrera.
 - Ezin izango da beste eskaerarik egin harik eta benetako bi zerbitzu-urte metatu arte eszedentziaz baliatzeko aldia amaitzen denetik aurrera.
 - Ezin izango da beste eskaerarik egin harik eta benetako lau zerbitzu-urte metatu arte eszedentziaz baliatzeko aldia amaitzen denetik aurrera.
 - Ezin izango da beste eskaerarik egin harik eta benetako bost zerbitzu-urte metatu arte eszedentziaz baliatzeko aldia amaitzen denetik aurrera.

41. Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 144. artikulua. Familiartekoak zaintzeko borondatezko eszedentzia.

- a. Funtzionarioek, egoera horretan dauden bitartean, Administrazioak antolatzen dituen prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izango dute.
- b. Prestakuntzan telematikoki baino ezingo dute parte hartu.
- c. Inola ere ezingo dute parte hartu Administrazioak antolatutako prestakuntzan.
- d. Prestakuntzan parte hartzeko, zerbitzura itzuli beharko dute.

42. 3/2018 Lege Organikoaren 1. artikulua. Espainiako Konstituzioaren zer artikulutan babesten da pertsona fisikoek beren datu pertsonalak babespean egoteko duten oinarritzko eskubidea?

- a. Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikuluan
- b. Espainiako Konstituzioaren 28. artikuluan
- c. Espainiako Konstituzioaren 38. artikuluan
- d. Espainiako Konstituzioaren 48. artikuluan

43. 3/2018 Lege Organikoaren 5. artikulua. Honako hauek dute konfidentzialtasun-eginbeharra:

- a. Datuen tratamendurako arduradunak nahiz datuen tratamendurako eragileak.
- b. Datuen tratamendurako arduradunak bakarrik.
- c. Datuen tratamendurako eragileak bakarrik.
- d. Ez datuen tratamendurako arduradunak, ez datuen tratamendurako eragileak.

44. 3/2018 Lege Organikoaren 6. artikulua. Zer da datu pertsonalen tratamenduak ukitutako pertsonaren adostasuna?:

- a. Ukituaren borondate-adierazpen aske, espezifiko, arrazoitu eta zalantzarik gabekoa, egintza positibo batez edo isilbidez egina, zeinaren bidez ukituak onartzen baitu bere datuak tratatuak izan daitezen.
- b. Ukituaren borondate-adierazpen aske, berariazko eta idatzizkoa, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, zeinaren bidez ukituak onartzen baitu bere datuak tratatuak izan daitezen.
- c. Ukituaren borondate-adierazpen aske, berariazko eta idatzizkoa, egintza positibo argi batez egina, zeinaren bidez ukituak onartzen baitu bere datuak tratatuak izan daitezen.
- d. Ukituaren borondate-adierazpen aske, espezifiko, arrazoitu eta zalantzarik gabekoa, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, zeinaren bidez ukituak onartzen baitu bere datu pertsonalak tratatuak izan daitezen.

45. 3/2018 Lege Organikoaren 1. artikulua. Noren datu pertsonalak babesten ditu legeak?

- a. Pertsona fisiko edota juridikoenak.
- b. Pertsona fisiko, juridiko eta irabazi-asmorik gabeko erakundeenak.
- c. Merkataritza-sozietateenak.
- d. Pertsona fisikoak.

46. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13. artikulua. Zer eskubide dute pertsonak administrazio publikoekiko harremanetan?

- a. Baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.
- b. Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, lege horretan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.
- c. Errespetuz eta begirunez tratatuak izatea agintarien eta enplegatu publikoen aldetik.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

47. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikulua. Zer kolektibo mota EZ dago behartuta administrazio publikoekiko harremana formatu elektronikoan izatera?

- a. Profesionalak.
- b. Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
- c. Pertsona fisikoak.
- d. Pertsona juridikoak

48. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikulua. Interesdunek non aurkez ditzakete administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak?

- a. Dokumentuak hartu behar dituen administrazioaren egoitza elektronikoan bakarrik.
- b. Posta-bulegoetan bakarrik.
- c. Posta elektronikoz bakarrik.
- d. a), b) eta c) erantzunak ez dira zuzenak.

49. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 17. artikulua. Zer bermatu behar du dokumentu elektronikoak gordetzeko aukeratzen den formatuak?

- a. Dokumentuaren autentikotasuna, osotasuna eta kontserbazioa eta, orobat, hura kontsultatzeko modua izango dela, eman zirenetik igaro den denbora gorabehera.
- b. Autentikotasuna eta osotasuna.
- c. Dokumentuaren autentikotasuna, osotasuna eta kontserbazioa eta, orobat, hura bost urtez kontsultatzeko modua izango dela.
- d. Autentikotasuna, osotasuna eta trazabilitatea.

50. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua. Administrazioa behartuta dago ebazpen espresua ematera. Noiz?

- a. Alderdi batek eskatuta hasitako prozeduretan bakarrik.
- b. Ofizioz hasitako prozeduretan bakarrik.
- c. Behartuta dago ebazpena ematera, baina ez hura jakinaraztera.
- d. a), b) eta c) erantzunak ez dira zuzenak.

51. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 29. artikulua. Zeinek bete behar ditu lege horretan edo beste lege batzuetan ezarritako epe-mugak eta epeak?

- a. Administrazioetako agintari eta langileek nahiz interesdunek.
- b. Interesdunek bakarrik.
- c. Administrazio publikoetako langileek epeak alda ditzakete, egoki baderitzote.
- d. Prozeduretan interesdun diren pertsonen ordezkariak bakarrik bete behar dituzte epeak.

52. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 30. artikulua. Epeak egunetan jartzen badira:

- a. Egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak.
- b. Naturalak direla ulertuko da.
- c. Egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko igandeak eta jaiegun izendatutakoak.
- d. Egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko larunbatak eta igandeak.

53. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 30. artikulua. Egunetan adierazitako epeak:

- a. Jakinarazpena egiten den egunetik aurrera zenbatuko dira.
- b. Jakinarazpena egiten den egunaren aurrekotik aurrera zenbatuko dira.
- c. Dagokion egintzaren jakinarazpena edo argitalpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.
- d. Interesdunak eskatze hutsarekin luzatu ahal izango dira.

54. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 30. artikulua. Zer gertatzen da egun bat balioduna bada interesduna bizi den udalerrrian edo autonomia-erkidegoan, eta baliogabea administrazio-organoaren egoitzan, edo alderantziz?

- a. Balioduntzat hartuko da beti.
- b. Baliogabetzat hartuko da beti.
- c. Jakinarazpena igorri duen administrazio-organoaren esku utziko da erabakia.
- d. Interesdunak epea luzatzeko eskatu ahal izango du.

55. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 33. artikulua. Noiz erabaki daiteke prozedura bat presaz izapidetzea?

- a. Interes publikoko arrazoiek hala gomendatzen dutenean.
- b. Ofizios edo interesdunak eskatuta.
- c. Prozedura arrunterako ezarritako epeak erdira laburtuko dira, salbu eta eskabideak eta errekursoak aurkeztekoak.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

56. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 66. artikulua. Prozedura bat hasteko eskaeretan, hauek adierazi behar dira:

- a. Interesdunaren izen-abizenak eta, halakorik izanez gero, ordezkariarenak.
- b. Egitateak, arrazoiak eta eskaera zehatza, argi eta garbi adierazirik.
- c. Lekua, data eta eskatzailearen sinadura edo benetan bere borondatea adierazi duela erakusteko edozein eratako egiaztapena.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

57. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 67. artikulua. Ondare-erantzukizuneko prozedurak hasteko eskaerak. Interesdunek ondare-erantzukizuneko prozedura hasia eskatu ahal izango dute soilik beren erreklamatzeko eskubidea artean preskribatu gabe badago.

- a. Erreklamazioa egiteko eskubidea urtebeteren buruan preskribatuko da, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.
- b. Erreklamazioa egiteko eskubidea bi urteren buruan preskribatuko da, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.
- c. Erreklamazioa egiteko eskubidea hiru urteren buruan preskribatuko da, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.
- d. Erreklamazioa egiteko eskubidea lau urteren buruan preskribatuko da, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edo kaltearen ondorioak agertu zirenetik aurrera.

58. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikulua. Prozedura hasteko eskaera ez badira betetzen nahitaezko betekizunak, zer epe emango zaio interesdunari falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko?

- a. Bost egun.
- b. Hamar egun.
- c. Hamabost egun.
- d. Hilabete.

59. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikulua. Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta daudenek eskaera bat aurrez aurre aurkeztu badute, administrazio publikoek interesdunari eskatuko diote elektronikoki aurkeztuz zuzen dezala.

- a. Zuzenketa egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.
- b. Zuzenketa egin den egunaren biharamuna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.
- c. Aurrez aurreko aurkezpenaren eguna joko da aurkezpen-datatzat.
- d. Eskaera ez aurkeztutzat joko da.

60. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 69. artikulua. Erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa. Zertarako emango dute aukera erantzukizunpeko adierazpenek eta komunikazioek?

- a. Eskubide bat aitortzeko edo baliatzeko, edo jardura bat hasteko, aurkeztu diren egunetik aurrera.
- b. Administrazio-prozeduran ez da aukera hori aurreikusten.
- c. Eskubide bat aitortzeko edo baliatzeko, edo jardura bat hasteko, aurkeztu eta hilabetetik aurrera.
- d. Eskubide bat atzeraeraginez aitortzeko edo baliatzeko.

- 61. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikulua. Egintza baten jakinarazpena egitean ohiko betekizunen bat bete gabe geratu bada haren edukian:**
- Ez du ondoriozik sortuko.
 - Nahikoa izango da, nahiz eta jakinarazpenak ez jaso ebazpenaren testu osoa.
 - Ondorioak sortuko ditu, baldin eta interesdunak dagokion errekurtsioa jartzen badu egintzaren aurka.
 - Ondorioak sortuko ditu, baldin eta elektronikoa bada.
- 62. Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 76. artikulua. Interesdunek aukera izango dute prozeduraren edozein urratsetan alegazioak egiteko eta dokumentuak edo bestelako irizpen-elementuak aurkezteko.**
- Entzunaldi-izapidea egin baino lehen.
 - Entzunaldi-izapidea egin ondoren.
 - Ezin izango dute alegaziorik egin eskaera aurkeztu ondoren.
 - Ezin da dokumenturik aurkeztu eskaera egin ondoren.
- 63.- 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 56. Artikulua, Behin-behineko neurriak. Honako behin-behineko neurri hauek hartu ahal izango dira, Prozedura Zibilaren urtarilaren 7ko 1/2000 Legean aurreikusitako baldintzetan:**
- Jarduerak aldi baterako etetea.
 - Fidantzak jartzea.
 - Erreklamatzeko diren diru-kopuruak kontsignatzea edo gordailuan jartzea.
 - a, b eta c erantzunak zuzenak dira.
- 64.- 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 57. Artikulua, Metatzea. Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organismoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura. Metatzeko erabakiaren aurka:**
- Ezin da errekurtsorik aurkeztu.
 - Gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke.
 - Berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke.
 - Erregutze-errekurtsioa aurkez daiteke.
- 65. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 30. artikulua. Epeen zenbaketatik ari garela:**
- Epeak ordutan jartzen badira, administrazio-bulegoak jendearentzat irekita dauden orduak bakarrik hartuko dira balioduntzat.
 - Urtetan jartzen badira, uneko urteko azken egun baliodunean amaituko da epea.
 - Egunetan jartzen badira, egun natural guztiak zenbatzen dira, kontraktorik xedatu ezean.
 - Egunetan jartzen badira, arau orokor gisa, egun baliodunak zenbatuko dira; beraz, zenbaketatik kanpo geratuko dira larunbatak, igandeak eta jaiegunak.

66. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena.

- a. Zuzenbide pribatuko ente publikoa da, eta izaera juridiko propioa eta bere xedeak betetzeko eskumen osoa dauka.
- b. Organismo autonomoa da, eta izaera juridiko propioa eta bere xedeak betetzeko eskumen osoa dauka.
- c. Ez dauka izaera juridiko propiorik.
- d. Estatutuak onartu gabe dauzka.

67. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena; hauek dira Lanbideren eginkizunak, besteak beste:

- a. Laneratze-enpresen erregistroa eta enplegu-zentro berezien euskal erregistroa kudeatzea.
- b. Europar Batasunaren Eures sareari (Enplegu Zerbitzu Europarrak) lotutako eginkizunak betetzea.
- c. Zehatzeko ahala egikaritzea enpleguari eta langabeziari buruzko arloetan, legeria espezifikoan ezarritako moduan.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

68. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena; hauek dira Lanbideren gobernu-organoak:

- a. Lanbideren Administrazio Kontseilua.
- b. Zuzendaritza Nagusia.
- c. Idazkaritza Nagusia.
- d. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

69. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Administrazio Kontseilua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaritza- eta kontrol-organo gorena da.

- a. Hiru alderdik osatzen dute.
- b. Bi alderdik osatzen dute.
- c. Osaera asimetrikoa du.
- d. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

70. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena; hauek osatzen dute Lanbideren Administrazio Kontseilua:

- a. Kontseilburuak, idazkariak eta hamalau bokalek.
- b. Kontseilburuak, kontseilburuordeak, idazkariak eta hamalau bokalek.
- c. Kontseilburuak, kontseilburuordeak eta idazkariak.
- d. Kontseilburuak eta kontseilburuordeak.

71. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Lanbideren Administrazio Kontseiluan

- a. Ordezkaritza sindikala badago.

- b. Ez dago ordezkaritza sindikalik.
- c. Enpresa-ordezkaritza dago soilik.
- d. Lanbideren estatutuek ez dute bere Administrazio Kontseilua arautzen.

72.- 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuena. Eusko Jaurlaritzako sailburuari dagokio Administrazio Kontseiluko presidente izatea:

- a.- Segurtasunaren arloko eskumena duenari.
- b.- Lanbideko zuzendari orokorrari.
- c.- Lehendakariari.
- d.- Enplegu arloko eskumena duenari.

73. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituenak. Administrazio Kontseiluaren buruari eginkizun hauek dagozkio, besteak beste:

- a. Administrazio Kontseilua ordezkatzeko.
- b. Berdinketak bere botoaren bidez haustea, erabakiak hartzearen.
- c. Bileretako buru izatea, eta eztabaidak moderatzea.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

74. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituenak. Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenak iraupen hau izango du:

- a. Bi urte.
- b. Hiru urte.
- c. Lau urte.
- d. Mugagabea izango da.

75. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituenak. Administrazio Kontseilua honela bilduko da:

- a. Aurrez aurre edo urrunetik.
- b. Aurrez aurre soilik.
- c. Urrunetik soilik.
- d. Lanbideren estatutuek ez dute alderdi hori arautzen.

76. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituenak. Administrazio Kontseiluaren bilera-deialdiak aurrerapen hauekin egingo dira:

- a. Gutxienez bost egun natural lehenago.
- b. Ezohiko bileretan, epe hori bi egun baliodunetara murriztuko da.
- c. Hamabost egun natural lehenago.
- d. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

77. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituenak. Kontseiluaren erabakiak bertaratutako pertsonen emandako botoen gehiengo soilaz hartuko dira. Boto horien artean, Euskal

Autonomia Erkidegoko sektore publikoa ordezkatzan dutenen aldeko botoa jaso beharko da.

- a. Berdinketa gertatuz gero, kontseiluburuak boto erabakitzailea izango du.
- b. Berdinketa gertatuz gero, idazkariak boto erabakitzailea izango du.
- c. Erabakiak kideen gehiengo osoz hartuko dira.
- d. Lanbideren estatutuek ez dute alderdi hori arautzen.

78. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Zuzendaritza Nagusia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko pertsona bakarreko gobernu-organoa da.

- a. Titularra goi-karguduna da, sailburuorde mailakoa.
- b. Titularra goi-karguduna da, sailburu mailakoa.
- c. Titularra goi-karguduna da, legebiltzarkide mailakoa.
- d. Titularra goi-karguduna da, zuzendari mailakoa.

79. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Lanbiden, zuzendaritza exekutiboak definitzen dira kudeaketa-organo gisa.

- a. Zuzendaritza exekutiboak bost dira.
- b. Zuzendaritza exekutiboak lau dira.
- c. Zuzendaritza exekutiboak hiru dira.
- d. Zuzendaritza exekutiboak sei dira.

80. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, besteak beste:

- a. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren giza baliabideak kudeatzea.
- b. Zuzenbide pribatuko ente publikoaren aholkularitza juridikoa.
- c. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Langileen Erregistroa zuzentzea eta kudeatzea.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

81. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena; hauek dira Lanbideren eginkizunak, besteak beste:

- a. Elkarrekin lan egiteko mekanismoak zehaztea zuzendaritza exekutiboekin, entearen antolaketaren ekintza bateratua bermatzeko.
- b. Zuzendaritza exekutiboen parte-hartzea koordinatzea arreta, informazio eta prospekzioko tresna komun diseinuan eta mantenuan.
- c. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak Euskal Enplegu Sarean duen partaidetza koordinatzea.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

82. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Prestazioen Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, besteak beste:

- a. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kudeatzea, eta, hala badagokio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatu beharreko beste prestazio edo subsidio oro.
- b. Zehapen-espedienteak izapidetzea, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren Sistemaren prestazio ekonomikoei dagokienez.
- c. Aztertzea ea betetzen diren enpleguaren arloko betebeharrak, baldin eta hauek jasotzearen ondoriozkoak badira: langabezia-prestazioa eta -subsidioa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatzen duen bestelako prestazio, subsidio edo laguntza oro.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

83. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Enpresen eta Ekintzailetzaren Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, besteak beste:

- a. Euskal Enplegu Sareak enpresa eta entitate enplegatzaileei ematen dizkien zerbitzuak diseinatzea eta kudeatzea
- b. Aholkularitza ematea autoenplegurako, ekintzailetzarako eta gizarte-ekonomia sustatzeko, bai eta kontratazioa sustatzeko eskuragarri dauden pizgarri eta neurriei buruz ere.
- c. Enpresa eta entitate enplegatzaileekin lankidetzatza sustatzea, prestakuntza-behar orokor eta sektorialak hautemateko.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

84. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, besteak beste:

- a. Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren erabiltzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eta zerbitzuak kudeatzea
- b. Arreta, informazio eta prospekzioko tresna komunen diseinuan eta mantenuan laguntzea.
- c. Enpleguaren edo enplegu-zerbitzuaren eskari-erregistroa eta Lanerako Prestakuntza Entitateen Euskal Erregistroa kudeatzea.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

85. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Hauek dira zuzendaritza- eta kudeaketa-organoei laguntzeko zerbitzuak :

- a. Kabinete Teknikoa.
- b. Lanbideren dekretuan ez dira zerbitzu horiek deskribatzen.
- c. Ikerketa eta Berrikuntza Zerbitzua.
- d. a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

86. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituena. Lurraldeko enplegu-bulegoak. Beren lurralde-eremuan, eginkizun hauek dituzte, besteak beste:

- a. Tokiko enplegu-bulegoen funtzionamendua zuzendu, koordinatu eta ikuskatzea.

- b. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren planak eta programak ezartzea, lurraldean garatu beharrekoak.
- c. Foru-aldundiekiko, udalerriekiko eta sektore publikoa osatzen duten gainerako tokiko ente eta entitateekiko lankidetzak sustatzea.
- d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

87. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituenak. Tokiko enplegu-bulegoak.

- a. Tokiko enplegu-bulegoak zein lurraldetan kokatuta dauden, hango lurralde-bulegoaren mende daude organikoki eta funtzionalki.
- b. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunen hitzorduak eta agerraldiak bideratzen dituzte.
- c. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko eta enplegarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarrietako zerbitzuak ematen dituzte.
- e. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

88. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituenak. Lanbideren estatutuak onartzen dituen 93/2025 Dekretua egun honetan jarri zen indarrean:

- a. 2025eko ekainaren 1ean.
- b. 2025eko uztailaren 1ean.
- c. 2025eko abuztuaren 1ean.
- d. Oraindik ez da indarrean jarri.

89. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zein da Enpleguaren Euskal Legearen helburu nagusia? 1. artikulua.

- a. Gutxieneko soldatak arautzea.
- b. Enplegarritasuna hobetzeko eskubideak eta betebeharrak definitzea eta Enpleguaren Euskal Sarea sortzea.
- c. Jaiegunak ezartzea.
- d. Pentsioak arautzea.

90. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Nola definitzen du lege honek lan duina? 2. artikulua.

- a. Ordutegi malgua duen lana.
- b. Bidezko diru-sarrera, segurtasuna, gizarte-babesa eta aukera-berdintasuna eskaintzen dituen lana
- c. Sektore publikoan lan egitea.
- d. Aldi baterako lana.

91. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer erakundek kudeatzen du Euskal Enplegu Sarea? 19. artikulua.

- a. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE).
- b. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak.

- c. Foru Aldundiak.
- d. Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak.

92. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Legearen arabera, zer kolektibok jasotzen du lehentasunezko arreta? 6. artikulua.

- a. Enplegu egonkorra dutenek.
- b. Kualifikazio baxua dutenek.
- c. Diru-sarrera handiak dituztenek.
- d. Atzeritarrek soilik.

93. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer dokumentuk jasotzen du pertsona baten lan-bizitzari buruzko informazio garrantzitsu guztia Euskal Enplegu Sarean? 43. artikulua.

- a. Lan-kontratuak.
- b. Lan-historia bakarrak.
- c. Nominak.
- d. Enpresa-ziurtagiriak.

94. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer zerbitzu EZ dira Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren parte? 25. artikulua.

- a. Enplegurako orientazioa.
- b. Lanerako prestakuntza.
- c. Autoenplegurako aholkularitza.
- d. Garraio-zerbitzua.

95. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer printzipiok bermatzen du Euskal Enplegu Sarearen zerbitzuak doakoak izatea? 47. artikulua.

- a. Unibertsaltasunak.
- b. Doakotasunak.
- c. Gardentasunak.
- d. Efizientziak.

96. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer organok koordinatzen ditu enplegu-politika publikoak EAEn? 69. artikulua.

- a. Ministroen Kontseiluak.
- b. Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak.
- c. Europako Parlamentuak.
- d. Konstituzio Auzitegiak.

97. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Legearen arabera, zer da enplegarritasuna? 2. artikulua.

- a. Enpresa batek kontratatzeko duen gaitasuna.
- b. Lan duina aurkitzen eta horri eusten laguntzen duten konpetentzien eta kualifikazioen multzoa.
- c. Hiri bateko langile kopurua.
- d. Unibertsitate-ikasketen maila.

- 98. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Legearen arabera, zein kolektibo ez da lehentasunezko arretakotzat jotzen? 6. artikulua.**
- a. Emakumeak.
 - b. % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenak.
 - c. Iraupen luzeko langabetuak.
 - d. Lan-kontratu mugagabea dutenak.
- 99. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer zerbitzuek ematen die laguntza euren enplegua sortu nahi duten interesdunei? 33. artikulua.**
- a. Bitartekotza-zerbitzuak.
 - b. Autoenplegurako eta ekintzailatzarako aholkularitza-zerbitzuak.
 - c. Informazio aurreratuko zerbitzuak.
 - d. Ikuskaritza-zerbitzuak.
- 100. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Hizkuntzari dagokionez, zer eskubide dute erabiltzaileek? 37. artikulua.**
- a. Gaztelania bakarrik erabil dezakete.
 - b. Harremana zein hizkuntza ofizialetan izan nahi duten aukera dezakete.
 - c. Euskara bakarrik erabil dezakete.
 - d. Ezin dute hizkuntza aukeratu.
- 101. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer printzipiok sustatzen du gizarte-eragileek enplegu-politiken plangintzan parte hartzea? 5. artikulua.**
- a. Doakotasunak.
 - b. Elkarrikeria sozialak.
 - c. Efizientziak.
 - d. Gardentasunak.
- 102. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer tresnak ahalbidetzen du lan-bizitzan zehar emandako zerbitzuen jarraipena egitea? 42. artikulua.**
- a. Hileko nominak.
 - b. Arreta eta jarraipenerako tresna komunak.
 - c. Enpresa-ziurtagiriak.
 - d. Lan-kontratuak.
- 103. 15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Enplegu-politika publikoen zer printzipio gidarik sustatzen du aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza? 5. artikulua.**
- a. Hurbiltasunak.
 - b. Aukera-berdintasunak eta diskriminaziorik ezak.
 - c. Efizientziak.
 - d. Gardentasunak.

104. **15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer artikuluk definitzen du enplegu-politika publikoen “tokikotasuna”?**
2. artikulua.
 3. artikulua.
 4. artikulua.
 5. artikulua.
105. **15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Legearen arabera, zein dira enplegu-politika aktiboen eragileak? 8. artikulua.**
- Administrazio publikoak soilik.
 - Administrazioak, entitate publikoak, sindikatuak, enpresak, prestakuntza-entitateak, unibertsitateak, enplegatze-agentziak eta hirugarren sektore soziala.
 - Lanbide eta foru-aldundiak soilik.
 - Enpresa pribatuak soilik.
106. **15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Lan-historia bakarrari dagokionez, zer eskubide dute erabiltzaileek? 37. eta 43. artikulua.**
- Lan-historia aurrez aurre baino ezin dute kontsultatu.
 - Ez dute lan-historiarako sarbiderik.
 - Lan-historia bakarraren kopia izan eta eskura dezakete.
 - Lan-historia urtean behin soilik kontsulta dezakete.
107. **15/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. Zer organok du Enpleguaren Euskal Legea betetzen dela ikuskatzeko eta kontrolatzeko ardura? 59. artikulua.**
- Foru-aldundiek.
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak.
 - Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak.
 - Ministroen Kontseiluak.
108. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, Lehen Aukera 2026 programarena. 3. artikulua. Deialdi honetako kontratuek dirulaguntza jaso ahal izateko, beharrezkoa da gazte langabearekin kontratatutako lanaldia:**
- Osoa izatea.
 - Gutxienez % 70ekoa izatea.
 - Gutxienez % 60ekoa izatea.
 - a) eta b) zuzenak dira.
109. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, Lehen Aukera 2026 programarena. 6. artikulua. Deialdiak dirulaguntzaren zenbateko handiagoa aurreikusten du emakumeak kontratatze gizonak kontratatze baino. Zenbateko hori ehuneko jakin bat handiago da. Hau da:**
- % 10.
 - % 15.
 - % 20.
 - % 5.

- ~~110. EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, Lehen Aukera 2026 programa. 4. artikulua. Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da enpresa kontratatzaileek~~
- ~~a. Egoitza soziala EAEn izatea.~~
 - ~~b. Egoitza fiskala EAEn izatea.~~
 - ~~c. Egoitza soziala eta fiskala EAEn izatea.~~
 - ~~d. Nahikoa da lantokia EAEn egotea.~~
111. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, Lehen Aukera 2026 programa. 10. artikulua. Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da.**
- a. Lehenengoan % 45, eta bigarrenean % 55.
 - b. Lehenengoan % 55, eta bigarrenean % 45.
 - c. Lehenengoan % 60, eta bigarrenean % 40.
 - d. Bi ordainketetan zenbateko bera da, hots, % 50.
112. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, Lehen Aukera 2026 programarena. 18. artikulua. Eskabideak esanbidezko ebazpen baten bidez onartu edo ukatuko dira; nork emango du ebazpen hori?**
- a. Lanbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak.
 - b. Lanbideko zuzendari nagusiak.
 - c. Lanbideko Prestazioen zuzendariak.
 - d. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuak.
113. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, Lehen Aukera 2026 programarena. 9. artikulua. Lanbide-praktika eskuratzeko prestakuntza-kontratuen kasuan, kontratuen gutxieneko iraupenak eskatutakoa edo diruz lagundutakoa izan beharko du, eta kontratu mugagabeen kasuan, berriz, 24 hilabetekoa izango da, gutxienez.**
- a. Baieztapen hori zuzena da.
 - b. Diruz lagundutako kontratu guztiek gutxienez 24 hilabeteko iraupena izan behar dute.
 - c. Ez da gutxieneko iraupenik ezartzen.
 - d. a), b) eta c) erantzunak okerrak dira.
114. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdiari buruzkoa. 3. artikulua. Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, kontratuek lanaldi osokoak izan beharko dute.**
- a. Ez, lanaldi txikiagoko kontratuak ere diruz lagunduko dira, baina gutxienez enpresako kontratu arruntaren % 70ekoa izango da.
 - b. Bai, lanaldi osoko kontratuak bakarrik lagunduko dira diruz.
 - c. Kontratuak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta lanaldiaren % 50ekoak badira.
 - d. Erantzun guztiak okerrak dira.
115. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdiari buruzkoa. 4. artikulua. Enpresa onuradunek egunean izan behar jo dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera (2023ko**

otsailaren 17ko EHAA). Noiz egiaztatuko da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela:

- a. Dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin aurretik.
 - b. Dirulaguntza eman aurretik.
 - c. Ordainketa bakoitza egitean.
 - d. Ez da halakorik egingo, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta egiaztatuko da.
- 116. EBAZPENA, apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdia. 7. artikulua. Artikulu horretan jasotako dirulaguntza-zenbateko guztiak handituko dira, kontratatutako pertsonak ezaugarri hauetako bat gutxienez badu: 55 urte edo gehiago izatea edo emakumea izatea.**
- a. Igoera % 10ekoa izango da.
 - b. Igoera % 15ekoa izango da.
 - c. Igoera % 20koa izango da.
 - d. Igoera % 30koa izango da.
- 117. EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdiari buruzkoa. 4. artikulua. Enpresa onuradunen betekizunen artean dago egoitza fiskala ez izatea erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.**
- a. Ez da enpresa edo entitate onuradunek bete beharreko baldintzetako bat.
 - b. Deialdiaren ebazpenean ez da gai hori aipatzen.
 - c. Egiaztatzekeo, ziurtagiria eskatzen zaio paradisu fiskalen ekonomia-agintaritzari.
 - d. Enpresek egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean ez izateko betekizuna bete behar dute.
- 118. EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdiari buruzkoa. 5. artikulua. Kontratatutak izateagatik dirulaguntza jaso ahal izateko, eskakizun hauek bete behar dituzte kontratatuek:**
- a. 50 urte edo gehiago izatea.
 - b. Langabezian egotea.
 - c. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan edo Estatuko dagokion enplegu-zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda eta alta emanda egotea.
 - d. a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 119. EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdiari buruzkoa. 9. artikulua. Ebazpena emateko organo eskuduna, eta emateko eta ebazteko prozedurak.**
- a. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Enpresen eta Ekintzailtzaren zuzendaria da kudeaketa eta izapidetzea egiteko eta ebazpena emateko organo eskuduna.
 - b. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Enpresen eta Ekintzailtzaren zuzendaria da ebazpena emateko organo eskuduna.

- c. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria da ebazpena emateko organo eskuduna.
 - d. Bai kudeaketa eta izapidetzerako, bai ebazpena emateko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusia da organo eskuduna.
120. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdiari buruzkoa. 8. artikulua. Hau da eskaerak aurkezteko epea:**
- a. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2026ko irailaren 30ean amaituko da, egun hori barne.
 - b. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2026ko abuztuaren 30ean amaituko da.
 - c. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2026ko urriaren 30ean amaituko da.
 - d. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2026ko abenduaren 31n amaituko da.
121. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdiari buruzkoa. 11. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.**
- a. Dirulaguntzaren zenbatekoa bi zatitan ordainduko da, bakoitzean % 50.
 - b. Laguntza hiru zatitan ordainduko da.
 - c. Dirulaguntzaren zenbatekoa bi zatitan ordainduko da, batean % 60 eta bestean % 40.
 - d. Dirulaguntzaren zenbatekoa lau zatitan ordainduko da, bakoitzean % 25.
122. **EBAZPENA, 2026ko apirilaren 22koa, 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzekeo deialdiari buruzkoa. 12. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea. Azkenean, enpresa edo entitate onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik (deialdi honen 10.1 artikuluan adierazten dira), kontratuaren iraupena ezarritakoa baino laburragoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da.**
- a. Proportzionalki.
 - b. Ez da murriztuko.
 - c. Erdira murriztuko da.
 - d. Heren bat murriztuko da kasu guztietan.
-
123. **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera, hauetako bakarra dago Administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta. Nor?**
- a. Besteak beste, ondare-masak, nortasun juridikorik gabeko entitateak, eta notarioak, jabetza-erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak.
 - b. Besteak beste, pertsona juridikoak eta Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartua dauden interesdunen ordezkariak.
 - c. Pertsona fisikoak soilik.
 - d. Nortasun juridikorik gabeko entitateak soilik.

- 124. Administrazio-prozedura hasi aurretik behin-behineko neurriak hartzea erabakitzen denean. 56. artikulua. Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea.**
- a. Gehienez hamabost eguneko epean hasi beharko da prozedura.
 - b. Ezinbestekoa da alde aurretik interesdunari entzunaldia ematea.
 - c. Neurriek prozedura amaitu arte iraungo dute.
 - d. Neurriak ezin dira aldatu prozeduran zehar.
- 125. Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea. 80. artikulua. Berariaz aurkakorik xedatu ezean, hau da txostenei buruzko arau orokorra:**
- a. Nahitaezkoak eta lotesleak dira.
 - b. Nahitaezkoak dira, baina ez lotesleak.
 - c. Borondatezkoak dira, baina ez lotesleak.
 - d. Borondatezkoak eta lotesleak dira.
- 126. Non argitaratzen dira ofizialki arau autonomikoak, hala nola Enpleguaren Euskal Legea?**
- a. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA)
 - b. Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) soilik.
 - c. Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) soilik.
 - d. Enpresa pribatuen bame-taula batean.
- 127. Enpleguaren Legearen 6. artikulua arabera, zein hartu ohi da lehentasunezko arreta behar duten kolektibotzat?**
- a. Iraupen luzeko langabetuak.
 - b. Enplegu finkoa dutenak soilik.
 - c. Lurralde historiko jakin batean tributatzeko dutenak soilik.
 - d. Duela 20 urte baino gehiagotik norberaren kontura lan egiten dutenak soilik.
- 128. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen arabera, Lanbide honela eratzen da:**
- a. Foru-aldundien mendeko merkataritza-sozietate publiko gisa.
 - b. Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa.
 - c. Administrazio-organismo autonomo gisa (bere tipologia juridikoan aldaketarik egin gabe).
 - d. Lan-arloan espezializatutako jurisdikzio-organo gisa.
- 129. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 90. artikulua arabera, Zer dakar nagusiki Lanbide zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa eratzeak?**
- a. Enpresa pribatu gisa jarduten du, eta merkataritza-zuzenbidearen arabera soilik arautzen da.
 - b. Nortasun juridiko propioa duen sektore publikoko entitatea izanik, bere araudi espezifikoak, zuzenbide pribatuko entitate publikoentzat xedatutako araubideak eta Lanbideren beraren estatutuek arautzen dute.
 - c. Ezin ditu enplegu-zerbitzuak kudeatu, eta estatistika-jarduerak baino ez ditu egiten.
 - d. Botere judizialaren mende dago organikoki, lan-gatazkak konpontzeko.

- 130. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 1. artikulua arabera, legearen xedea da, besteak beste:**
- EAEn negoziazio kolektiboa arautzea soilik.
 - Pertsonen euren enplegarritasuna hobetzeko dituzten eskubideak eta betebeharrak definitzea.
 - Estatuko lan-legeria oso-osorik ordeztzea.
 - Sektoreko gutxieneko soldata dekretu bidez finkatzea.
- 131. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen arabera, zer entitate da EAEn enplegu-politikak kudeatzeko ardura duen erakunde publikoa?**
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.
 - Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak.
 - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.
- 132. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 11. artikulua arabera, enplegu-zerbitzuen erabiltzaileek honetarako eskubidea dute:**
- Prestazio ekonomiko automatikoa lortzeko, enplegu-eskatzaileri gisa izena emanda egoteagatik.
 - Administrazio Publikoak zuzenean kontratatzea.
 - Bere enplegarritasuna hobetzeko, orientazioa, akonpainamendua eta arreta pertsonalizatua jasotzeko.
 - Lanpostuak zuzenean esleipenaren bidez eskuratzeko.
- 133. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen arabera, enplegarritasuna hobetzeko neurrien arloan, jarduketa hauetako zein jasotzen da 14. artikuluan?**
- Gaitasunak eskuratzeko prestakuntza-ibilbideak.
 - Ibilgailu partikularrentzako trafiko-salbuespenak.
 - Etxebizitza erosteko laguntzak.
 - Enpleguarekin loturik ez duten kultura-konsumoko bonuak.
- 134. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 7. artikulua arabera, enplegu politika publikoetako berdintasunaren arloan, zer jarduketa ezartzen da?**
- Enplegu-eremuetan berdintasun-politiken aplikazioa ezabatzea.
 - Neurriak hartzea emakumeen enplegurako sarbidea eta haien baldintzak benetan hobetzeko, genero-ikuspegia txertatuta.
 - Emakumeen enplegu-programa jakin batzuetan parte har dezaten mugatzea, lan-partaidetzaren mailaren arabera.
 - Sarbide-prozedurak ausazko esleipen-sistemekin ordeztzea.
- 135. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 32. artikulua arabera, bitartekotza- eta enplegatze-zerbitzuak barne hartzen du:**
- Enplegu-eskaintzak identifikatu eta kudeatzea, eta haiek lan-eskatzaileriei lotzea, haien profil eta konpetentzien arabera.
 - Ikuskapenen eta zehapen-prozeduren kudeaketa eskusiboa.
 - Titulu akademiko ofizialak ematea.
 - Diru-politikak eta truke-tasak zehaztea.

136. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 13. artikulua arabera, zer da laneratze-tresna?

- a. Nahitaezko enpleguen zerrenda itxi bat.
- b. Lanpostuak esleitzeko ausazko sistema bat.
- c. Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatu bat, orientazioa, prestakuntza eta enpleguaren bilatze aktiboa barne hartzen duena.
- d. Enplegu-eskaintza bat nahitaez onartzea.

137. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen arabera, zein da enplegu-politikak ebaluatzearen xedea?

- a. Estatistika-sistema ofizialak metodologia zehatzik gabeko inkestak bidez ordeztzea.
- b. Emaitzak neurtzea, programen eta zerbitzuen kalitatea hobetzea, eta jarduketaren gardentasuna eta kontu-ematea bermatzea.
- c. Baliabide publikoen erabilera justifikatzeko betebeharrak ezabatzea.
- d. Lan-merkatuari buruzko datuak argitaratzea saihestea.

138. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 6. artikulua arabera, enplegu-politikan, zer neurri aurreikusten da desgaitasuna dutenei dagokienez?

- a. Lan-merkatu ireki, inklusibo eta irisgarriarako sarbidea.
- b. Desgaitasuna dutenak enplegu arrunteko programetatik kanpo uztea.
- c. Parte-hartzea lan-ingurune babestuetara mugatzea, enplegu arruntera igaro gabe.
- d. Kolektibo horrentzako enpleguaren arloko neurri espezifikoak kentzea.

139. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 37. artikulua arabera, erabiltzaileen informazioaren arloan, zer jarduketa bermatu behar dute Euskal Enplegu Sareko entitateek?

- a. Deialdiak mugatzea eta haututako enpresentzat soilik argitaratzea.
- b. Informazioa aurrez aurreko bulego bakar bati ematea, beste aukerarik gabe.
- c. Enplegu-eskaintzak betekizunak deskribatu gabe argitaratzea, alborapenak saihesteko.
- d. Zerbitzuen zerrendari, lan-merkatuari eta prestakuntza-eskaintzari buruzko informazio osoa, egiazkoa, jarraitua, ulergarria, eskuragarria eta nahikoa ematea.

140. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 30. artikulua arabera, zer jarduketa da lanbide-orientazioaren parte?

- a. Lan-arloko gatazka judizialak konpontzea.
- b. Hirigintza arloko udal-lizentziak ematea.
- c. Banakako diagnostikoa, aholkularitza eta laguntza, enplegarritasuna eta enplegua bilatzea hobetzeko.
- d. Biztanleen udal-errola kudeatzea.

141. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 47. artikulua arabera, zer jarduketa egin behar dute Euskal Enplegu Sareko entitateek?

- a. Lankidetza eta kooperazioa ematea elkarri, zerbitzu-zorroaren kudeaketan.
- b. Sistemako entitateen arteko informazio-trukea debekatzea.
- c. Bere jarduna administrazio-maila bakarrera mugatzea, koordinaziorik gabe.
- d. Kudeaketa publikoa operadore pribatuekin ordeztzea, Sarearen esku-hartzerik gabe.

142. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 7. artikulua arabera, zer neurri aurreikusten da enplegu-zerbitzuak eskatzen dituzten gazteentzat?

- a. Gutxienez hamar urteko esperientzia eskatzea enplegu-eskaintzaren bat eskuratzeko.
- b. Hogeita hamar urtetik beherakoak enplegu-sistematik kanpo uztea.
- c. Prestakuntza berrogeita bost urtetik gorakoetara mugatzea.
- d. Laneratzea errazteko eta bultzatzeko, talentua erakarri eta atxikitze, gazteen ekintzailetza bultzatzeko eta autoenplegua sustatzeko programa espezifikoak.

143. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 31. artikulua arabera, zer da lanerako prestakuntza-zerbitzuaren xedea?

- a. Derrigorrezko hezkuntza eta prestakuntza arautua ordeztzea.
- b. Ikastaro bat amaitzean lanpostu finkoa bermatzea.
- c. Enplegarritasuna hobetzeko gaitasun profesionalak eskuratu, zabaldu eta eguneratzea.
- d. Orientazio profesionalaren beharra murriztea kasu guztietan.

144. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 48. artikulua arabera, zer eginkizun dagozkie Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari?

- a. Lan-orientazioko eta -bitartekaritzako zerbitzuak ematea enplegu-politika aktiboen barruan.
- b. Lan-arloko lege autonomikoak onartzea.
- c. Lan-gatazketan epaiak ematea.
- d. Gizarte Segurantzako kuotak biltzea.

145. Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 10. artikulua arabera, zer eskubide dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-zerbitzuen eskatzaile gisa izena eman dutenek?

- a. Kontratu mugagabea automatikoki lortzea.
- b. Sektoreko gutxieneko soldata finkatzea.
- c. Udal-errola ordeztzea.
- d. Laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia izateko eskubidea.

146. Lanbideren webgunean, Milanbidenet-en sartzeko aukera bat dago. Zer da hori?

- a. Eskaintzen bilatzaile publiko ireki bat, identifikatu beharrik ez duena.
- b. Enplegu-eskaerarekin eta prestazioekin lotutako izapideak eta komunikazioak kontsultatzeko eta kudeatzeko identifikatutako sarbide-eremu pertsonala.
- c. Eskaintzak argitaratzeko eta hautagaitzak kudeatzeko enpresentzako plataforma eskusiboa.
- d. Telefono bidez aurretiazko hitzordua eskatzeko arreta-zerbitzua.

147. "Lanbide Hobetzen" antolamendu-aldaketako prozesuan, zein da ikuspegi-aldaketa nabarmenena?

- a. Laguntzak izapidetzeko eta kudeatzeko bulegoak izatetik herritarrei eta enpresei zuzendutako enplegu-zerbitzuak emateko bulegoak izatera igarotzea.
- b. Orientazioa eta prestakuntza kudeaketa zehatzaile hutsarekin ordeztzea.
- c. Aurrez aurreko arreta kentzea, zerbitzuak posta arruntez bakarrik emateko.
- d. Enplegu-eskumen guztiak entitate pribatuei transferitzea, gainbegiratze publikorik gabe.

148. Jarduera hauetako zein lotzen zaio "Lanbide Hobetzen" ereduaren arreta-eredu berriari?

- a. Zerbitzuen zorroa murriztea, jada enplegatuta daudenei soilik arreta emateko.
- b. Programen ebaluazioa mugarik gabe etetea, aldaketak saihesteko.
- c. Bulegoak berrantolatzea eta zereginak digitalizatzea.
- d. Bitartekaritza ausazko prozesuekin ordeztzea, egokitzapen-irizpiderik gabe.

149. 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren arabera, zer behar identifikatzen da Euskal Enplegu Sistemari eta Lanbideren zereginari dagokienez?

- a. Lan-merkatuan duten esku-hartzea murriztea.
- b. Balio eta lidergo handiagoa ekarriko duen hobekuntza-prozesu bat bultzatzea.
- c. Bitartekaritza publikoa pribatuarekin ordeztzea.
- d. Jarduera prestazioen administrazio-kudeaketara mugatzea..

150. Zertarako sortu zen Next Generation EU tresna?

- a. EB etengabe finantzatzeko.
- b. Enplegua gazteei soilik emateko.
- c. Estatu kideen zergak kudeatzeko.
- d. Europako herrialdeei pandemiaren ondoren suspertzen laguntzeko.

151. 2030 Agendaren zein helbururekin lerrokatzen da nagusiki Lanbide Hobetzen?

- a. Nahitaezko hezkuntzarekin.
- b. Lan duin eta hazkunde ekonomikoarekin.
- c. Osasun eta ongizatearekin.
- d. Hiri eta komunitate jasangarriekin.

152. "Lanbide Hobetzen" dokumentuaren arabera, zer ahulezia identifikatzen da Lanbideren arreta-ereduari dagokionez?

- a. Gehiegizko lurralde-bereizketa dago.
- b. Langileek lan espezializatuegiak egiten dituzte.
- c. Zerbitzuak homogeneoak dira, behar bereziei erantzun gabe.
- d. Esku hartzeko eredu definitu gehiegi daude.

153. "Lanbide Hobetzen" planaren arabera, esku hartzeko eredu berriak honelakoa izan behar du:

- a. Malgua eta pertsonen eta produkzio-sarearen beharretara egokitua.

- b. Zurruna eta homogeneoa.
- c. Aurrez aurrekoa soilik.
- d. Prestazio ekonomikoetan soilik oinarritua.

154. Tokiko enplegu-bulegoei dagokienez, "Lanbide Hobetzen" planak zera planteatzen du:

- a. Orientazio-bulego izatetik bulego zehatzaile izatera igarotzea.
- b. Bulego digital izatetik aurrez aurreko bulego izatera igarotzea.
- c. Lurralde bulego izatetik aurrez aurreko bulego izatera igarotzea.
- d. Unitate izapidetzaile izatetik zerbitzu-bulegoak izatera igarotzea.

155. "Lanbide Hobetzen" dokumentuak hauei buruzko hausnarketa-prozesu bat irekitzea planteatzen du:

- a. Lanbide desagertzea.
- b. Lanbiderentzako figura juridikorik egokiena.
- c. Enplegu-politika aktiboak kentzea.
- d. Enplegu publikoa kentzea.

156. Lanbiden eskaera berritzeari dagokionez, zer maiztasunekin egin behar da, oro har?

- a. Hilero.
- b. 3 hilean behin.
- c. 6 hilean behin.
- d. Urtean behin.

157. Eskaera Lanbideren sisteman berritu dela berretsi ondoren, erabiltzaileak:

- a. LEABD edo EABD inprima ditzake.
- b. Bulegora joan behar du nahitaez.
- c. Berrespen-dei bat jasoko du.
- d. Eskuzko baliozkotzea itxaron behar du.

158. Lanbideren zerbitzuei buruzko informazioaren arabera, prestazio hauetako zein dagokio berari?

- a. Diru-sarrerak Bermatzeko Oinarritzko Errenta (DSBE).
- b. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS).
- c. Estatuko Erretiro Prestazio Kontributiboa (PJC).
- d. a) eta b) zuzenak dira.

159. Lanbideren estatutuen arabera, non du egoitza nagusia?

- a. Bilbon.
- b. Vitoria-Gasteizen.
- c. Donostian.
- d. Iruñean.

160. Lanbideren estatutuen arabera, zein dira bere gobernu-organoak?

- a. Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza Nagusia.

- b. Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritzak.
- c. Tokiko eta lurraldeko bulegoak.
- d. Entitate laguntzaileak.

161. Lehen Aukera programaren esparruan, hau da dirulaguntza jasotzeko kontratatu daitezkeen pertsonen adina:

- a. 30 urtetik beherakoak.
- b. 30 urtetik gorakoak.
- c. Adin-mugarik gabe.
- d. 60 urtetik gorakoak.

162. Lanbideren webgunearen arabera, prestakuntza-ikastaroek ba al dute kosturik?

- a. Bai, kostu txikia dute.
- b. Bai, ikastaroaren mailaren arabera.
- c. Ez, erabat doakoak dira.
- d. Ez, baina materiala aparte ordaintzen da.

163. Lanbidek lagun al dezake Europar lana bilatzen?

- a. Ez, estatuko eremuan soilik.
- b. Ez, EAEn soilik.
- c. Bai, Gizarte Segurantzaren bidez.
- d. Bai, EURES sarearen bidez.

164. Zeinek deskribatzen du hobekien Lanbideren bitartekaritza?

- a. Zehapen penalak ezartzea lan-iruzurreratik.
- b. Enpresen enplegu-eskaintzak hautagaitzekin harremanetan jartzea, eta enplegatze-prozesua babestea.
- c. Izena eman dutenei etxebizitza publikoak esleitzea.
- d. Estatu mailako hitzarmen kolektiboak baimentzea.

165. "Lanbide Hobetzen" planaren esparruan, zer esan nahi du nagusiki bulegoen harmonizazioak?

- a. Bulego guztiek irizpide eta prozedura homogeneoak aplikatzen dituztela ziurtatzea, zerbitzu-zorro komuna eta herritarrentzako arreta-maila baliokidea dutela.
- b. Aurrez aurreko bulegoak pixkanaka ixtea, eta arreta guztia zentro bakarrean biltzea.
- c. Bulegoen kudeaketa udalen esku uztea, udalerri bakoitzak bere arauak defini ditzan.
- d. Jendearentzako arreta kanpora ateratzea, arreta enpresa pribatuek soilik eskaini dezaten.

01 bertsioa

Aldaketaren data	Testu aldatua
07/07/2026	104. galderaren erantzunak. Honela zioen a. 2. artikulua. b. 3.c) artikulua. c. 4.d) artikulua. d. 5. artikulua. Honela dio: a. 2. artikulua. b. 3. artikulua. c. 4. artikulua. d. 5. artikulua.

02 bertsioa

Aldaketaren data	
14/07/2026	110 galdera ezabatu da